

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua gauzaterako orduan hainbat elkarte funtsezkoak izango diren bezala hainbat baliabide ere garrantzitsuak izango dira hau ondo osatzeko. Baliabideen barruan hiru atal bereizten dira, fisikoak, intelektualak eta finantzakoak. Gure APPa burutzeko hirurak izango dira ezinbestekoak.

Negozia aurrera eramateko, finantza baliabideak eskuratu beharko ditugu. Alde batetik ekintzaile taldeko bakoitzak 1000€-ko inbertsioa egingo dugu, beraz guztira 4000€ izango ditugu. Beste aldetik, mailegu bat eskatuko dugu, hau Laboral Kutxa bankuan eskatuko dugu, aukera desberdinak konparatuz egokiena delako guretzat.

Bestalde, baliabide fisikoekin jarraituz, gure APPa sortzeko garrantzitsuena sistema informatikoa da (softwarea, programazioa, wifia), hau gabe bideraezina izango zaigulako produktua merkaturatzea. Horrez gain, bigarren eskuko bi ordenagailu eta mugikor bat eskuratuko ditugu. Hauekin sare sozialetan argitaratzeko publizitatea sortuko dugu, gehiengo batengana iristea gustatuko litzaiguke eta. Horretarako mugikorrak kalidadezko kamara bat izateaz arduratuko gara. Horretaz aparte, lan egiteko lokal bat izan beharko dugu. Dirua alferrik ez gastatzea lehentasun gisa hartu dugunez Telmoren garajea erabiltzea erabaki dugu. Denbora darama hutsik, erabilera zehatz bat izan gabe beraz aukera hau aprobeztatuko dugu dudarik gabe. Bertako instalazioak ere baliabide mota honen barruan kokatzen ditugu, ofizina antzerako bat eraiki nahi dugunez mahai luze bat erosiko dugu lau aulkirekin.



Bukatzeko, baliabide intelektualei dagokionez, ekintzaile taldeko kide bakoitzak bere abilezia propioak ditu eta hauek proiektuan gehitu egingo dute, ezaugarri hauek oso lagungarriak izango dira bakoitzak bere puntu fuerteak erabiliz, elkar osatzen dugulako. Esaterako, Lucía eta Telmo oso abilak dira teknologia munduan, betidanik izan dute gustuko eta oraindik esparru honetaz disfrutatzen jarraitzen dute. Gure helburua APP bat sortzea denez oso erabilgarriak egingo zaizkigu baliabide hauek mundu honi buruzko ezagutza bat dutelako. Lantaldeko beste bi kideek ere, Asierrek eta Saioak, baliabide bere-berekiak dituzte, oso irekiak dira eta pertsonekin harremanetan aritzeaz disfrutatzen dute. Gure ikuspuntutik bezeroekiko harremana zaintzea nahitaezkoa denez beraien laguntza funtsezkoa izango zaigu.